

EPAIMAHAIAREN OHARTARAZPENA

Nafarroako Unibertsitate Publikoan Euskarako oinarrizko lanpostuko teknikari izateko 3 lanpostu betetzeko deialdiak. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Euskarako OLko teknikari izateko hiru lanpostu (A maila) sarrera-prozeduraren bidez betetzekoak (2249/2022 EBAZPENA, 2022ko azaroaren 15ekoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko kudeatzaileak emana).

Hirugarren probari buruzko oharra

1.-Eguna eta tokia:

Oposizioaren hirugarren proba **2024ko apirilaren 12an** izanen da, **ostirala, 10:00etan**, Nafarroako Unibertsitate Publikoko **ikasgelategiko 110. ikasgelan, Arrosadiko campusean (Iruñea)**.

Izangaiek Nortasun Agiri Nazionala, AIZa, pasaportea edo gidabaimena aurkeztu beharko dute.

2.-Praktikoa da proba, euskarazko testuak berrikusi eta zuzentzekoa, eta guztira 10 puntu daude jokoan.

Bazterturik geldituko dira azterketan gutxienez puntuazioaren erdia lortzen ez dutenak, hots, 5 puntu.

Probak 90 minutu iraunen du.


3.-Probaren ezaugarriak:

Proba paperean egingen da. Izangaiek testuan berean zuzenketak markatu, eta paragrafo bakoitzaren eskuinaldean adierazi behar dute zer den zuzendu beharrekoa. Proposamenak ere egiten ahalko dituzte testua hobetzeko.

Ezin da hiztegirik eraman probara.

Iruñean, 2024ko martxoaren 25ean.

Epaimahaiburua eta epaimahaiko kide idazkaria.



Fernando Rey

Irati Bereau

